

# noaua



**Matrikulazio epea ixtear da  
Zumarte Musika Eskolan**

**Udal hauteskundeak 2023:  
alderdien hautes-programak**

**Sagardo Eguna, iruditan**

**Ekainaren 2an eta 3an,  
autodefentsa feminista  
ikastaroa Potxoenean**



# Albania

IRTEERA 2023ko iraila

Noaoak gidatutako talde bidaiak.  
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

**G15** GIPUZKOA  
HIGIEZINA  
ELKARTEA



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

## SALEROSKETA & ALOKAIKURAK

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.eus  
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

# ARATZ

zabaleta anaiak  
1989tik



*Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da*



·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak  
Igara Bidea, 15, Donostia erreserbak: 943 21 92 04

## Albisteak iruditan

## Hondakinak bidegabeki botata



Igartzazabalera bidean, Mandabideta inguruan botatako aulkia. Pneumatikoak aldiz, "Ameri erreka aldeko zuloatik" ateratu zituen argazkia bidali digun herritarrek.

Herrikide batek bidalitako argazkiak dituzue albiste honi atxikitakoak. Udalerriko bi txoko desberdinetan jaso dituenak dira.

**Ameri erreka aldeko zuloatik ateratakoak**  
Batean zein bestean, norbaitek hondakinak bidegabeki botata utzi dituela ikusten da. Pneumatikoak "Ameri erreka aldeko zuloatik" ateratakoak dira.

Bestetik, "Igartzazabalera bidean, Mandabideta inguruan, autoak aparkatzeko gunetik" ikusitakoa da.

## Laburrean

## Garbigune mugikorra, Kalezarren

Etxeetako hondakinen berrerabilpena eta birziklapena sustatzeko garbigune mugikor bat jarri du martxan Udalak. Maiatzaren 25etik 31era Kalezarren izango da. Eta hurrengo astean, ekainaren 1etik ekainaren 7ra bitartean, Usurbilgo kaxkoan.

## Dorleta Kortazar ipuin kontalaria Sutegin

Ostegun honetan, maiatzak 25, Dorleta Kortazar ipuin kontalaria Sutegin izango da. 6 urtetik gorako haurrentzako saioa eskainiko du. 18:30ean hasiko da emaldia (eta ez 18:00etan, aurreko astean iragarri genuen moduan).

## Ikastola Eguneko bazkaritarako txartelak

Udarregi ikastolaren eguna ekainaren 10ean ospatuko da. Egun horretan antolatu duten otodurako txartelak ikastolako idazkaritzan eskuratu ahalko dira. Adi, ekainaren 5a baino lehen erosi behar baitira.

# noaua

Kultur Elkartea  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// elkarte@noaua.eus /// www.noaua.eus  
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkari koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua.  
**Diseinua:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.  
**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noaua.eus

**Banaketa:** Iñaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.930 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



## Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak  
Euskal Herrira!



Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Izaten dira poliki-poliki gero eta grisago bilakatzuten diren egunak eta horrelakoa izan zen maiatzaren 13a. Eguraldi iragarpenarekin batera, egunkarietako, irratietako, telebistako eta sare sozialetako albisteak eta titularrak aldatuz joan ziren, gero eta ilunago: Herri Urrats 40. jaialdiaren atarian; Uholdeen ondorioz bertan behera geratzear egon da Herri Urrats; Uholdeen ondorioz Herri Urrats ezingo da ospatu ohiko formatuan; Aurtengo Herri Urrats eguraldiak baldintzatu eta ez da ohikoa izango; Egingo da Herri Urrats, gune bakar batera mugatuta; Eutsi diote Senpererako deia.

Tantaka-tantaka, eguratsa ilunduz zihuan eta bekokiak ere bai. Ez da posible! Baina bai, irudiak lekuko: erreka gainezka, oholitzen azpitik ura barra-barra, lakua handituta, bideetan ura aterata... Sinetsi beste erremediorik ez zegoen.

Sinbolikoki bada ere, jaia ospatu zen, baina besta bere handitasun osoan ezin ospatze horrek milaka euroko galera ekonomikoa ekarri dio Seaskari. Maiatzaren 14ko Herri Urrats "mugatuarekin" ezinezkoa izan zitzaizen eguneko gastuei ere aurre egitea eta galarak "izugarriak" izan direla adierazi dute. Horregatik egin

## Di-da batean



"Sinbolikoki bada ere, Herri Urrats ospatu zen, baina milaka euroko galera ekonomikoa ekarri dio Seaskari".

### AINHOA AZPIROTZ

**"Nike eta Adidaseko kamiseta garestiak, Zarako merkeak edo ingeleseko esaldiak dituztenak erosi orde, Herri Urratsekoak erosiko al ditugu?"**

dute deialdi zabal bat Euskal Herri luze zabalean: "elkartasun uholdea behar dugu zubiak eraikitzen jarraitzeko". Sare sozialen bidez iritsi zaigu laguntza deialdia, baina aho-tsez heldu balitzaigu, animalia zauritu baten orroa izango zatekeen. Halaxe geratu baitira Seaskako ikastolak; zaurituta, ahulduta, urteroko laguntza dosirik gabe.

Berehala ireki dituzte ekarpen ekonomikoa egiteko bideak, bankuetako kontu korronteak eta arropa erosteko denda ere 24 orduz irekita.

Bide batzuk, gainera, bideidator azkarrak, errazak eta askok eskura dituen modukoak dira, bizuma, adibidez. Poltsikoan daramagun sakelakoa atera eta barran eskatutakoaren zain gauden bitartean, kafea hartu bitartean, lagun baten zain gauden bitartean edo ikastola atarian umearen zain gaudenean egin daiteke. Di-da batean. Eta ekarpena, bakoitzak bere neurrikoa. Taldeko whatsappean porra egiteko ere aitzakia polita izan daiteke: *ea kuadrilan zenbat diru jartzea lortzen dugun! Ezetz lortu Usurbilen 5.000 euro bidaltzea Herri Urratsera! Aldameneko herrikoak zirikatu eta lehian sartuz gero, gehiago ere bai, agian!* "Egunean behin"en 2021eko abenduko finalean 28.282 lagunek hartu zuten parte. Haietako bakoitzak 10 euro jarriko balitu Herri Urratsentzat, 282.820 euro izango liriateke.

Lortuko ote dugu? Tamainako erantzuna emango ote diegu? Euskal jendarte Gara eta Berria sortzeko erakutsi zuen elkartasuna erakusteko gai izango ote da 2023an? Pandemiaren ondoren bakoitzak bere ziliborrari begiratzeko joera handitu den honetan, begiak altxa eta hori ez dela horrela frogatzeko kapazak izango ote gara? Nike eta Adidaseko kamiseta garestiak, Zarako merkeak edo ingeleseko esaldiak dituztenak erosi orde, Herri Urratsekoak erosiko al ditugu?

Iparraldeko gurasoek eta ikasleek esan diguten moduan, gure laguntzarekin zubiak eraikitzen jarraitu ahal izango dugu, eta jadanik eraikita daudenak indartzen. Euskaraz bizitzen eta ikasten jarraitu nahi dute, eta gure laguntza behar dute, beste inorenik ez baitute. Di-da batean.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

Zuen publizitatea hemen

943 360 321  
publizitatea@noeua.eus



ARTZABAL

BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com

·EGUNEKO MENUA  
·KARTA  
·RAZIOAK  
·HANBURGESAK  
·BOKATAK



943 36 91 39

## Ika-mika

## Azkena izan dadin

Sei hilabete pasa dira gure Ama, Itziar M.I., Lasarte-Oriako Atsobakar zahar egoitzan zendu zenetik.

Denbora hau igarota, etxe-koak, atsekabetuta eta nekatuta gaude. Amaren heriotza sinestezina dugu buruan eta guri gertatutakoa beste inori ez gertatzeko egin ditugun ahalegin guztiak, ezerezean gelditu diren susmoa dugu.

Gure iritziz, sinestezina izan zen Amaren bukaeraz ez gara asko luzatuko, hemen zertzelada batzuk:

-Iazko azaroaren 13an, goizeko 11:30ak aldera larrialdiko medikua iritsi zen Atsobakarrera eta ama azkenengotan zegoela adierazi zigun. Heriotza hain hurbil egonda, ospitalera igotzeko aukera azaldu genion eta berak, ospitalean eskainiko litzaioken zerbitzua, erizainak Atsobakarren eman zekiokela adierazi zuen. Horretarako beharrezko jarraibideak ezarri eta erizainari jakinarazi zizkion. Helburua, amak ez sufritzea zen.

Hasieran, amasketa zaratatsua eta sukarra arintzeko, morfina sartuko zien,... eta hilzorian egonez gero, sedazio aringarria erreskate gisa erabiliko zen.

-Arratsaldeko 19:30ak aldera orde, ama ahotik lerdea botatzen hasi zen. Berehala auxiliarrangana jo genuen erizainari abisatzeko esanez. Horixe zen adostutakoa, zerbait susmatu orduko erizainari abisatzea medikuaren jarraibideekin segitzeko. Baina, auxiliarrak, erizainak alde egin zuela esan ziguten, zentroan, erizainik ez zegoela. Ama hilzorian eta bukaera arinduko liokeen sedazio aringarria jartzeko inor ez.

-Auxiliarrak, larrialdiko medikuari deitu ziotela esan ziguten. Hori bai, atezaina 20:00etan alde egin behar zuela eta medikuari atea zabaltzeko giltzak guri utzi zizkiguten.

-19:30etik aurrera, bi anaiok, gelan, amaren lerdea garbitu nahian, amaren ezina ikusiaz, bakardadean; inoren laguntzarik gabe egon ginen. 21:00etan

hil zen arte. Medikua, 21:25ean iritsi zen zentrora, heriotza agiria sinatzeko.

Amaren heriotzako uneak hain gogorak izan zirenez, etxe-koak, Atsobakarreko Zuzendariari azalpenak eskatzea pentsatu genuen eta azaroaren 16an hainbat galdera egin genizkion.

Abenduaren 13an azaroan eginiko eskaera gogorarazi ondoren, eskatutako txostena urtarrilaren 18an iritsi zitzaigun. Gure ustez: txosten oso eskasa eta gezurrez betea.

Eta horrela adierazi genien Atsobakarreko Zuzendariari eta Kabia Elkarteko arduradunari urtarrilaren 27an eginiko aurrez aurreko bileran. Bilerak ere, gure lasaitasunerako, ez zuen ekarpen handirik ekarri. Bilera bukaeran, Atsobakarreko Zuzendariari, 13 galderez osatutako txostena helarazi genion idatziz erantzun zezan.

Eta otsailaren 23an galderen erantzunak jaso genituen. Erantzun mingarriak. Ez dugu tarterik egindako galderei eta

emandako erantzunei buruzko erreposoa egiteko. Hona, Zuzendariak, hilabete eskaseko tartean emandako bi azalpen kontrajarriak:

2023-01-18: Zuzendariak onartu zuen gure Ama hil zen egunean, igandean, 19:30ean Atsobakarren erizainik ez zegoela.

2023-02-23: Zuzendariak, erizaina, egunero, goizeko 8:00etatik iluntzeko 21:30era arte egoten dela adierazi zuen.

Eta horixe da GAKOA.

Ez genuen uste honaino iritsiko ginenik. Nahikoa zen egindako hutsegiteak aitortu eta, halakorik berriro ez gertatzeko konpromisoa hartzea eta neurri zehatzak martxan jartzea. Guztiok irabaziko genuen: egoitzak, egoiliarak, senitartekoak, langileak... Horretarako borondateirik ez dugu ikusi. Horrexegatik egiten dugu hau publikoa, neurriak har daitezen eta inork nahi gabeko sufrimendurik pairatu ez dezan.

**Iñigo eta Patxi Azpirotz**

## Ika-mika

## Tramiteen zailtasuna, herritarren eskubideen ginetik?

Duela egun batzuk, EAJ-PNVren alkategai den Xabier Otxoak, honako adierazpen hau egin zuen bere Instagrameko kontuan (@xotxoa): “Behin lokalak itxi ostean, gero oso zaila da berriro irekitzea ze egokitu behar da lokala irisgarritasun araudi berrira eta orduan, horrek, zailtasun asko ekartzen ditu berriro jarduera berri bat irekitzeko, orduan, proposatzen duguna da trami-

teak errazteko Eusko Jaurlaritzari eskatzea irisgarritasun araudia egokitzea”.

Lokal bat egokitzeko garaian tramite batzuk betetzea zailtasuna al da?

Benetako zailtasuna, oztopo arkitektonikoak daudelako eguneroko bizitzako jarduretatik baztertua izatea da.

Irisgarritasuna sustatzea eta oztopo arkitektonikoak kentzea ez da ezgaitasuna du-

gunon premia bakarrik, herritar guztientzako abantaila ere bada.

Alkatea, udal bateko burua dela esaten da definizioz, herritarren alde lan egingo duela, herritar guztien alde, diskriminaziorik gabe.

ONU-k (Nazio Batuen Erakundeak), 2006ko abenduaren 13an “Ezgaitasuna duten pertsonen Eskubideen Konbentzioa” onartu zuen.

Zertarako?

- Eskubide berak izateko.
- Askatasuna izateko.
- Errespetatuak izateko.
- Gizartean osotasunean parte hartzeko.

Horregatik, legearen baitan, oinarri hauek bermatu behar dira erakundeetatik.

Ezgaitasuna izatea ez da hautatzen, alkategaia bai!

**Malen Aierbe Zubeldia**

# Hirigintza arloko lan ezberdinak martxan dira Aginagan

Saneamenduari lotutako lanak egingo dituzte asteotan Aginagan. Eliza Zaharretik Etxebesteko taberna tarte "partzialki itxita egongo da", ohartarazi du Usurbilgo Udalak, "gauez pasatzeko aukera egongo den arren, ko-txeak ezingo dira bertatik pasatu egunez, zanga bat ireki behar baitute". Bestalde, Maioz inguruko aparkalekuan ere "zanga bat ireki behar dute. Kasu horretan, aparkalekua erabilgarri izango da, baina makinaria aurrera eta atzera ibiliko da bertatik".

## Errepideko errei bat itxita

Hilabetez etenda egon ostean, gizonetzkoen eta emakumezkoen txirringularen Itzuliak igaro direnean N-634 errepideko errei bat itxi dute berriz Troia eta Txikiardi artean. Semaforo bidez kudea-



Troia eta Txikiardi arteko lanak etenda egon ziren hainbat astez. Berriz ere martxan dira. Aldundiak ez du argitu lanak noiz bukatuko dituzten.

## OBRAK AGINAGAN

***"Lanak iraun bitartean, Maiozeko aparkalekuak zabalik jarraituko du baina makinaria ibiliko da aurrera eta atzera"***

tuko dute eremu hau, lanok amaitu artean.

Lanon harira, Udalak honakoa ohartarazi du: "Aldundiak jakinarazi duenez, N-634 errepideko lanekin lotuta, Txikiardi eta Zubieta lotzen dituen bidean sasitza garbitzeko lanak egin behar dituzte; asteartean edo asteazkenean egingo dute. Haien esanetan, ibilgailuak pasatzeko tarteak utziko dute".

# Zenbait udal dirulaguntza lerroetara eskabideak aurkezteko epea zabalik oraindik

Martxoaren 17an itxi zuen Usurbilgo Udalak dirulaguntza lerro gehienetara eskabideak aurkezteko epea, baina ez guztietara. Oraindik zenbait arloetako egitasmoak bideratzeko laguntzak tramitatu daitezke.

Batetik, norgehiagoka erregimenekoak ez diren kirol arloko laguntzen kasuan, abenduaren 1era arte zabalik segiko du eskabideak aurkezteko epeak.

Lau programa hartzen ditu bere baitan laguntza lerro honak: laguntza bereziak, taldeetako prestakuntza teknikoak, kirolarien oinarriko osasun miaketak, eskolaz kanpoko kirol jardueretan parte hartzeko diru laguntzak.

Honez gain, ekintzailei

zuzendutako beste bi laguntza lerro ere baditu Udalak; batetik, Kabiene Elkartearen urtebeteko egonaldia egitea ahalbidetzen duen Hasiz Hazi beka. Bestetik, hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abiarazteko laguntza lerroa. Bertan, jarduera berria abiarazteko hasierako nahiz lokalaren erosketa edo alokairu gastuei aurre egiteko laguntza eskaintzen du. Bi kasuetan, bina ebazpen kalderatzen ditu Udalak urtero: lehenengoa, maiatzaren 31ra arte jasotako eskaerekin, eta bigarrena, irailaren 30era arte aurkezturikoekin. Otsailaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean duzue informazio gehiago.

## Udal dirulaguntzen ebazpenak

Maiatzaren 16ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zituen Usurbilgo Udalak hainbat dirulaguntzen behin-behineko ebazpenak. Alegazioak aurkezteko epea ixtear da.

## DA kolektiboaren egitasmoa

Kontzeptu zehatz batzuetatik abiatuta arte diziplina ezberdinen bidez sortutako istorio bilduma landu dute hainbat lagunek, tartean herrikide hainbatek, DA zigitupean. Kultur sorkuntzarako Usurbilgo Udalak emandako dirulaguntza jaso duen egitasmoa, ekainaren 9an aurkeztuko dute jendaurrean. Xehetasun gehiago, datorren aldizkarian.

## 'Usurbil, museo irekia' ekimena, ekaina amaierara bitarte gutxienez

Usurbilgo kaleetan ditugun kultur altxorrek ezagutzeko bisita gidatu gehiago asteburu honetan hasita, larunbat eta igande eguerdiro ekaina amaierara arte gutxienez, bestelako turismo ereduak sustatzen hasia den 650 Usurbil Bizi egitasmoaren baitako "Usurbil Museo Irekia" ekimenaren bidez. Sutegitik abiatuko dira 12:00etan eta ordubeteko iraupena izango dute. Izena aurrez eman beharko da 650usurbilbizi.eus atarian.

## Langabezia kopurua, aspaldiko kopuru baxuenean

Martxoan baino bi langabetu gehiago zenbatu zituen apirilean Usurbilen Estatuko Enplegu Zerbitzuak, 193. Halere, 2008tik izan gabeko datua da iragan hilabeteakoa. Gizonezkoak baino (81) emakumezko langabetu gehiago izaten segitzen du Usurbilek (112), gehienak (106) 45 urtetik gorakoak dira eta zerbitzuen sektorekoak (146).

Buruntzaldean eta Gipuzkoan, gutxitu egin da langabetu kopurua; eskualdean 2.901tik 2.861ra, Gipuzkoan 28.430tik 28.204ra.

Erregistraturiko kontratu kopurua murriztu egin da martxotik apirilera; martxoan 287 izan ziren, 200 apirilean. Ohi bezala, gehienak, 142, aldi baterako hitzartu zituzten. Eskualdean eta Gipuzkoan ere gutxitu egin da erregistraturiko kontratu kopurua; Buruntzaldean 1.976tik 1.655era eta Gipuzkoan 20.604tik 15.912ra.

# Poz nabarmena Txirikordako etxebizitzaren zozketan

**B**elaunaldiarteko Ugar-tondoko etxebizitza komunitarioko gazteei zuzenduriko bederatzi bizileku esleitu zituen zozketa bidez Usurbilgo Udalak. Bizilekuak soilik ez, poza ere "esleitu" zuen Usurbilgo Udalak maiztaren 18an Potxoenean egin-dako Txirikordako etxebizitzaren zozketan. Poza agerikoa izan zen, ekitaldira joan eta bizilekua egokitu zitzaizen gazteen artean.

Hamasei dira eraikiak dauden pisuak; lau bi geletakoak dira, hamabi gela bakarrekoak. Belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioan zortzina bizileku bideratu asmo zituen Usurbilgo Udalak, 18-30 urte artekoentzat eta 65 urtetik gorakoentzat. Otsaila amaierara arte izandako izen-emateko tartean, guztira 30 eskaera jaso zituen Usurbilgo Udalak. Haie-tatik sei 65 urtetik gorakoentzat izan ziren, bi baztertu zituzten eta lau onartu honenbestez. 18-30 urte artekoen kasuan, 24 eskaera jaso zituzten, bat baztertua izan zen eta beste batek uko egin dio bere eskabideari; beraz 22 dira onarturikoak.

**18-30 urte arteko gazteen artean 9 etxebizitza esleitu dira**  
Zenbakiok aintzakotzat hartuta, 65 urtetik gorakoentzako zortzi etxebizitzetatik lau bideratu dira. Udalak onarturiko araudiaren arabera, hiru utzi zitezkeen erreserban. Lauga-



Hamasei dira eraikiak dauden pisuak; lau bi geletakoak dira, hamabi gela bakarrekoak.

## TXIRIKORDA

**"18-30 urte artekoen etxebizitzak bost urterako esleitu dira"**

rreren bat ere bazenez hutsik kolektibo honentzat, pisu hau gazteen kolektibora bideratzea erabaki dute. Beraz, zortzi ez, 18-30 urte artekoen zuzenduriko bederatzi etxebizitza esleitu ditu zozketa bidez Udalak; bi geletako bi eta gela bakarreko zazpi. Gogoan izan, bost urterako esleitu dira 18-30 urte artekoen bizilekuok.

## Bizilagunen lanketa prozesua

65 urtetik gorakoentzat, aurrekusi bezala Gizarte Zerbitzuetako baremazio bidez esleitu dituzte egunotan. Izena eman baina bizilekua egokitu ez zaienen itxarote-zerrenda ere osatu dute.

## Alegazioetarako epea irekita

Iragan asteko zozketa bidez eginiko esleipenaren onarpena behin-behineko dekretu bidez kaleratuko du Usurbilgo Udalak. Ekitaldian parte hartu duten udal teknikariek berri eman zuten, gero alegazioak aurkezteko hamar eguneko epea irekiko dute eta hortik behin betiko onarpena eman-go zaio esleipen honi. Horrez gain, bizilekua egokitu zaien baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatuko du Udalak eta denek Txirikordaren araudi eta funtzionamenduari lotutako lanketa prozesu batean parte hartu beharko dute. Ekainaren 8an egin asmo dute lehen saioa. Hilabete horretan halako hitzordu gehiago ere izango dituzte. Uda ostean, segida izango du irailetik aurrera urrira arte. Udalaren aurreikuspena, urte amaieran Txirikordak bizilagunak izatea da.



## Udal baratzeak zozketatu dituzte

Hamarkada bat bete duten Agerreazpiko udal baratzeek badute lurroko landuko dituenik hurrengo bost urteotan. Maiatzaren 17an egin zuen Usurbilgo Udalak eremu honetako partzelak esleitzen hasi zirenetik hirugarren zozketa Potxoenean. Guztira 60 baratze dira esleitu dituztenak 2028ra arte; 30 metro karratuko 36 eta 60 metro karratuko beste 24.

55 eskaera izan direla berri eman zuen udal teknikari Ibon Goikoetxeak. Honenbestez, denei egokitu zaie partzela bat. Haien artean dira azken bost urteotan Agerreazpiko udal parke honetan baratzearen bat izan dutenak. Hauen kasuan orain arteko partzela berean segiko dute lurra lantzen. Aldiz, bederatzi eskatzaile berrik izena eman dute aurreko asteetan zabalik izan den epearen baitan eta haien artean egin da zozketa. Horrez gain, 60 partzela izanik bost libre geratu dira eta itxaron zerrendan geratu direnei esleitu zaizkie zozketan atera diren hurrenkeran.

Iragarkien taulan jakinaraziko dute partzela esleitu zaien herritarren nahiz itxarote zerrenda.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**txirriStra**  
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontzeju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Partzi**  
Partzi 2022  
Jateketa

- bazkariak EGUNERO
- afariak: OSTIRAL/LARUNBATA

☎ 943 362725  
☎ 688 690 361

# Autodefentsa feminista ikastaroa

**E**magin elkarteak gidatutako ikastaroa ekaina hasierarako iragarri du Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak. Zehazkiago esanda, ekainaren 2an eta 3an izango dira saioak, ostiral arratsaldean (17:00-20:00) eta larunbat goizez (10:00-13:00) Potxoenean izango dira saioak, guztira sei orduko ikastaroa.

Herriko emakume guztiei zuzendua egongo da. “Ikastaroarekin hainbat helburu lortu nahi dituzte: emakumeek indarkeriarekiko dituzten bizi-penak konpartitu eta biltzea; elkar entzutea eta beldur eta emozio desberdinei buruz lasai hitz egiteko tartea izatea; erasoak identifikatzen ikastea eta indarkeriaren definizioa taldean lantzea; autodefentsaz hausnartu eta erasoei aurre egiteko estrategiak lantzea; eta erantzun, alternatiba eta estrategia indibidualetan zein kolektiboetan sakontzea”. Ikastarorako izena aurrez eman behar



Herriko emakume guztiei zuzendua egongo da ikastaroa. Argazkia: Goiena.

## IKASTAROA

**“Ekainaren 2an eta 3an  
egingo da ikastaroa  
Potxoenean,  
baina maiatzaren 30a  
baino lehen eman  
behar da izena”**

da, maiatzaren 30a baino lehen: [parekidetasuna1@usurbil.eus](mailto:parekidetasuna1@usurbil.eus)  
943 377 110

## Baterajotzerako izen-ematea

Euskal Herriko Neska\* Gazteek “Utopiak lehertzeraino, neska\* gazteok baterajotzera!” deitu dituzte urriaren 13tik 15era Usurbilen. Apirilean egin zuten ekimenaren aurkezpena Mikel Laboa plazan. Baterajotzerako izen-ematea zabaldu duela berri eman dute antolatzaileek. Inskripzioak [ehkoneskagazteak.eus](http://ehkoneskagazteak.eus) atarian bideratu beharko dira.

## Greba Feminista Orokorra prestatzeko emakumeei\* deia

Udazkenean egingo den Zaintza Grebaren gaineko informazioa eman eta asanblada bat osatzeko Kafe Tertuliako kideek bilera antolatu zuten maiatzaren 13an. Adin ezberdinetako emakumeak\* biltzea eta denen artean Greba Feminista Orokorrerako antolatzea zuten helburu.

## Bilera gehiago egingo dira

Lehen urratsa izan zen hilaren 13koa, baina asanblada eta bilera gehiago egingo dituzte datozen hilabeteetan.



Bilera gehiago egingo dituzte datozen asteetan.

# Matrikulazio garaia amaitzear da Zumarte Musika Eskolan

Datorren ikasturterako matrikulatzeko egunak dituzue honako hauek Zumarte Musika Eskola izango da maiatzaren 26ra arte. Hemen xehetasun gehiago:

## 2023-24 ikasturtea

■ Eskaintza: Musika txokoa (4-7 urte), musika mintzaira, abesbatza, talde instrumentalak, kantu modernoa eta askotariko musika instrumentuetan (biolina, eskusoinua, flauta, gitarra, klarineta, organoa, panderoa, perkusioa, pianoa, saxofoia, trikitixa, tronpeta, tronboia, txistua) trebatzeko aukera.

■ Matrikulazio epea: maiatzak 26.

■ Presentzialki: astearte eta osteguna (10:00-12:30 / 17:30-19:00).



Maiatzaren 26an itxiko da matrikula osatzeko epea. Informazio gehiago [zumarte.eus](http://zumarte.eus) web orrialdean.

■ Online: [zumarte.eus](http://zumarte.eus)

■ Prezioak: matrikula eta kuenten prezioak mantenduko dituzte. Hainbat hobari eskuratzeko aukera izango da: -Familia ugarietan, matrikula-

ren prezioan %40ko deskontua egingo zaio matrikulatuta dagoen ikasle gazteenari. Horretarako, familia ugariaren txartela ekarri beharko da bulegora.

-Unitate familiar bereko hiru senide edo gehiago matrikulatuta dauden kasuetan, matrikularen prezioan %40ko deskontua egingo zaio ikasle gazteenari. Ikasle gazteenak bixkiak izanez gero, ikasle bati bakarrik egingo zaio deskontua.

■ Ordainketa: “Plaza kopuruen zozketak egin eta onartutako ikasleen zerrendak argitaratu ondoren, zuek adierazitako kontu korrontetik, ikaslea onartua izan den ikasgaien matrikularengatik ordaindu beharreko tasaren %10 kobratuko zaizue ekaina bukaeran, %40 iraileko lehen astean eta %50 abendua hasieran”.

## Informazio gehiago:

[zumarte.eus](http://zumarte.eus) atarian.



## Usurbilgo EHBildu: “Ezagutzak, herritarrekiko gertutasunak definitzen du gure taldea”

**E**rdibidera heldu den hauteskunde kanpaina honetako ekitaldi nagusia egin zuen Usurbilgo EHBilduk maiatzaren 19an. “Euskal Herri aske, euskaldun, feminista eta sozialistaren aldeko topa” egin ez amaitu zuten ondoko talde argazkia ateratzearekin batera.

“Gure ortzimuga eta anbizio nagusia; Usurbil justuagoa, berdinzaleagoa eta kohesio-natuagoa” dela adierazi zuen alkategai Agurtzane Solaberrieta Mesak, talde kide izanago dituen eta koalizioko komunitateko kideez inguratua. Aurrera begira, “konfiantza ereiten jarraitu behar dugu. Ziurgabetasuna nagusi den garaiotan jendeari ziurtasunak eskaini behar dizkiogu, eta horretarako badugu taldea”. Talde



EHBilduk frontoian egin zuen hauteskunde kanpainako ekitaldi nagusia.

### EHBILDU

**“Ziurgabetasuna nagusi den garain jendeari ziurtasunak eskaini behar dizkiogu, eta horretarako badugu taldea”**

“herrigile” bat osatu dutela nabarmendu zuten, “ezagutzak, herritarrekiko gertutasunak definitzen duelako gure taldea”.

Datorren legealdirako “jendearen bizitzak hobetu ditzaketan politika publiko ausartak diseinatzen eta garatzen” segitzen duten honetan, 90 neurridun programa iragarri zuen Usurbilgo EHBilduk; besteak beste, politika publiko feministak sustatzen segitzeko asmoa agertu zuen.

Herriko sortzaileek girotu

zuten ekitaldian, Ibai Iriarte Tolosako alkate ohi eta egungo EHBilduren legebiltzarkideak hartu zuen parte. Gogorazi duenez, maiatzaren 28an “esku-eskura dugu herri hau ezkerretik eraikitzen jarraitzea” eta erreferentzialtzat jo duen Usurbilgo “alternatibaren garapenean sakontzea”. Aldaketa garaiotako “erronka kolosalei” aurre egiteko ezinbestekotzat jo zituen erantzun eta lidergotza partekatu, ireki eta feministak.

Igande honi begira, honako deialdia egin zuten: “Maiatzaren 28an bete ditzagun hautetsontziak EHBilduren boto-paperez. EHBilduren botoa feminista, antifaxista, ekologista, euskalduna eta euskaltzalea, aniztasuna eta ezkerreko botoa da. Boto errebeldea, askatasunaren botoa delako”.

## EAJ-PNV: “Pertsona bakoitzaren nahi eta beharrei erantzuteko prest egon behar dugu”

**U**surbilgo EAJ-PNVren hautagaitzako kideak Maite Peña Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako diputatuarekin bildu ziren aurreko astean. Gizarte arloan datozen urteetan izango diren erronkak errepasatzeaz gain, adineko pertsonen zaintza eta arretaren inguruan jardun zuten.

“Hamar adinekoetatik zortzik euren etxean bizitzen jarraitu nahi dute, eta hori hala izan dadin, etxean bertan jasotzen duten arretan sakondu beharra dago”, azpimarratu zuen bilera amaieran Xabier Otxoa EAJ-PNVren hautagaiak.

Zentzu horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan estuan jardungo dutela hitzeman zuen Otxoak: “persona bakoitzaren nahi



EAJ-PNVren hautagaiak Maite Peña diputatuarekin batu ziren aurreko astean Kalezarren, Matia Fundazioa eraikitzen ari den egoitzaren atarian.

### XABIER OTXOA, EAJ-PNV

**“Asko dira euren etxeetan bizi diren adineko pertsonak, eta horiei guztiei kalitatezko zaintza bermatzea ezinbestekoa da”**

eta beharrei erantzuteko prest egon behar dugu, Gipuzkoako

beste herrietan garatzen ari diren esperientzietatik ikasi eta Usurbil ere punta-puntan kokatzeko”.

### Koordinazioan sakondu

Osasun eta udal zein foru gizarte sistemen arteko koordinazioan sakontzea beharrezkoa izango dela diote

Usurbilgo EAJko kideek, “baita gizarte eragileengandik eta komunitatetik datozen ekimekin harremanak indartzea ere”.

### Kalitatezko zaintza bermatu

Horretaz gain, etxeko arreta eta egoitza berrien garapena uztartu behar direla uste du alderdi jeltzaleak. “Usurbilen Matia Fundazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzari esker eraiki duen egoitzak laster atek irekiko baditu ere, asko dira euren etxeetan bizi diren adineko pertsonak, eta horiei guztiei kalitatezko zaintza bermatzea ezinbestekoa da. Konpromiso hori azaltzen diogu Usurbilgo herriari, zerbitzuak zabaldu, modernizatu eta gero eta irisgarriago egingo ditugu”, adierazi du Xabier Otxoa alkategaiak.

# Sagardo Egunaren 40. edizioak “marka guztiak hautsi ditu”

Sagardo Egunaren bihar-munean, antolatzaileek ohar bat plazaratu zuten sare sozialen bidez. Nekatuta baina pozik daudela ondorioztatu daiteke, lanerako boluntario ugari batu zirelako “eta herriko zein kanpoko jende mordo” elkartu zelako 40. Sagardo Egunean.



Goizean goiz, 125 boluntario baino gehiago azaldu ziren Dema plazan.

Antolatzaileen oharra bere osotasunean jaso dugu. Hone-ladiora dio: “Gaurko hantetako eta buruko min guztien gainetik, 40. urteurrena 40 milioi esker emanaz amaitu behar dugu.

Marka guztiak hautsiz joan den urteurrena izan da eta ‘filpatzen’ gaude oraindik.

Goizean goizetik 125 boluntariotik gora azaldu zireten Dema plazara, laguntzeko ilusioz eta energiak beteta gainera, eta hori benetan, izugarria da, zoragarriak zarete.

Irekiera-ekitaldia hasi eta

ordu erdira, baso grabatuak (ze edalontzi polita diseinatu digun aurtengoan ere Aritz Aranburuk, eskerrik asko bihotzez) ia agortzeaz zeuden, eta hori ere, benetan, izugarria da.

Herriko zen kanpoko jende mordo elkartu zen, arratsaldean ere Matraka elektrotxangaren lan bikainaz lagunduta kale guztiak jendez josi genituen, eta hori ere, izugarria izan zen.

Zuek ez dakigu, baina gu be-

hintzat, emozionatuta gaude atzoko eguna gogoratzean! Benetan eta bihotz-bihotzez barrutik zein kanpotik Sagardo Eguna bizitu zenuten guztioi, pintxoak larunbatean kozinatu zituztenei, banatu zituztenei, aurreko egunetan muntaian laguntzera etorri zinetenoi, igandeko boluntario guztiei, edalontziak saldu eta banatu zenituztenoi eta batez ere, plazara gerturatu zireten guzti-guztiei, eskerrik asko!”.

## Botatzaileen lehiaketan Beñat Hernandezek jantzi zuen txapela

Ursurbilgo 40. Sagardo Egunean ez zen botatzaileen lehiaketarik falta izan. Ibai Markos, Ane Irazabal eta Beñat Hernandezen artean jokatu zen finaleko saioa. Paretsu aritu baziren ere, Beñatek eraman zuen txapela.

Sagardo Eguneko antolatzaileen esanetan, 90 bat botatzaile aritzen dira zerbitzatzen. Botatzaileen lehiaketako epaimahaia postuz postu ibili zen eta zerbitzari guztien artean finaleko hiru lagunak hautatu zituen.

### Baso bakarria bete behar

Nobedaderik izan da aurtengo lehiaketan. Garai batean, bota-



Hiru finalistak paretsu aritu ziren finaleko saioan.

tzaile bakoitzak botila bat hustu behar zuen sei basotan. Aurten, baso bakarria betetzearekin nahikoa zen.

Finaleko saioan Ibai Markos, Ane Irazabal eta Beñat Hernandez paretsu aritu baziren ere,

Beñatentzat izan zen txapela. Ane Irazabalek bigarren saria eskuratu zuen (Saizarreko Euskal Sagardoa eta gazta zati bat) eta Ibai Markosek osatu zuen podiuma. Honek ere Euskal Sagardoa eskuratu zuen sari gisa.



### Sagardo Egunaren soinu banda

Zumarte Musika Eskolako trikitilari eta panderojoleak girotu zuten 40. Sagardo Eguna. Juan Tapia gidari zutela, frontoian emanaldia eskaini zuten eta ondoren kalejiran ibili ziren.



### Mariskadaren zozketako zenbaki saritua: 1724

Mikel Laboa plazako karpagunean, oroimenerako tartea ere izan zen. Usurbil 1936 elkarteak postua jarri zuen. “Mariskada eder baten boletoak” saltzen aritu ziren goiz partean. Eguerdian iragarri zuten boleto irabazlearen zenbakia: 1724.

### Sagardo dastaketa Artzabalen

Sagardo Egunaren atarian, Euskal Sagardoa jatorri deituraren inguruko dastaketa egin zuten Artzabalen. Denetarikoa sagardoak probatzeko aukera izan zuten bertaratutako dozena bat lagunek: burbuiladuna, gozoa, lupuluduna...



Artzabalek eta Euskal Sagardoak antolatutako dastaketa-saioa.

# Xabier Soroa Udabe omendu zuten Sagardo Eguneko irekiera ekitaldian

**K**alezartarrak izan zuten 40. Sagardo Eguna abiatzeko ohorea. Urteetan antolaketa lanetan egin duen ekarpena aitortu zioten, ezustean.

Eman nahi zioten ezustekoa isilpean gordetzen ez zuten lan erraza, baina bikain egin zuten, azkenean ezustean harapatu baitzuten. Gainerako boluntarioekin batera, auzolaneari zebilen urtero moduan lerrootako eta irudiotako protagonista; Sagardo Egun honetarako prestaketa lan betean, goizeko 11:30ak heldu ziren arte.

Berrogeigarren edizio borobil honi hasiera eman behar eta frontoira gerturatzeko esan ziotenean jaso zuten ezuste ederra. Sagardo Egunaren Lagunak urtero goraiatu eta omentzen ditu talde edo norbanakoak alor ezberdinetan eginiko ekarpenengatik.

## Urte luzez antolaketan egin duen lanarengatik

Aurtengoan, ordea, taldekide bat omentzea erabaki dute; Xabier Soroa Udabe, urte luzez Sagardo Egun honi begira egin duen lan itzelagatik. Oholtzara igo bezain laster, alboan zituen antolakuntza taldeko



Omendua, bi bertso daramatzen koadroarekin. Bertsoak Haritz Esnalek sortu eta abestu zizkion hasiera ekitaldian.

## **“MEREZIMENDU OSOZ”**

**“Hainbeste urte Sagardo Egunaren alde egin eta gero, omenaldi xume hau egitea, zer gutxiago”.  
Antolakuntza taldeko kideak nahiz lagunak izan zituen alboan**

kideak nahiz lagunak. Haiek jarri zioten lepo bueltan zapia eta eman zioten bere irudia eta

bi bertso daramatzen koadroa. Bertsoak Haritz Esnalek sortu eta abestu zizkion hasiera ekitaldi honetan. Xabierrek zerbitzatutako lehen tragoa edanez eman zion hasiera ofiziala 40. Sagardo Egun honi.


## **Eskertza bertso bidez**

“Merezimendu osoz” jasotako omenaldia zela nabarmendu zuten ekitaldiko aurkezleak. Bertaraturikoen txalo zaparra-

da artean egin zioten harreara, oholtzatik adierazi zuten moduan, “herri mailan oso maitatua” izan eta urtebetetzea ospatu berri duen Soroari. “Hainbeste urte Sagardo Egunaren alde egin eta gero, omenaldi xume hau egitea, zer gutxiago”. Halaxe da bai. Esnalen bertsoetako batek zioen moduan, “Sagardo Eguna ez da berdina, Xabier Soroa gabe”. Zorionak!



Sagardo Egunaren Lagunak taldeak eginiko deialdiari erantzunez, auzolanerako talde ederra batu zen. Irudian dituzue, lanean hasi baino lehen eginiko argazkian.



Frontoian, Dema plazan, Askatasuna plazan, Mikel Laboa plazan... Eguerdire partean jende ugari zebilen toki guztietan. Sagardo Eguneako bideo eta argazki gehiago topatuko dituzue [noaua.eus](http://noaua.eus) web orrialdean eta gure sare sozialetan.

Sagardo Eguna bihotzean, soinean eta... azkazaletan.

# Jakin jardunaldietan gizarte mugimenduak izango dituzte hizpide

Zabalik da UEU-ren 51. udako ikastaroen baitako "Gizarte mugimenduak: erronka berriei elkargune berriak" Jakin jardunaldietan izen-emateko epea. Hemen xehetasunak:

- Jardunaldi egunak: ekainak 22 eta 23.
- Ordua: ekainaren 22an 9:00-17:30 artean eta ekainaren 23an 9:30-13:30 artean.
- Ordu kopurua: 15.
- Matrikulazio epea: ekainak 15.

■ Antolatzaileak: UEU, Jakin Fundazioa, Usurbilgo Udala.

■ Aurkezpena: "Nola aldatu dira Euskal Herriko mugimendu sozialak azken hamarkadetan? Ze egoeratan daude gaur egun? Eta pandemiak, nola erasan die gizarte mugimenduei? Belaunaldi berrien segida, militantzia-ereduaren bilakaera, mobilizatorako eta ekintzarako praktikak eraberritzea... auzi asko aipatzen dira gizarte mugimenduen gaur egungo egoeraz



Ekainaren 22an eta 23an egingo dira jardunaldiak baina matrikulazio epea ekainaren 15ean amaituko da.

## AZTERGAI NAGUSIA

**"Nola aldatu dira mugimendu sozialak azken hamarkadetan? Ze egoeratan daude gaur egun?"**

eta erronkez aritzerakoan. Tes-tuinguru berri horretan, nola antolatzen dira mugimenduetako kideak? Nola sortzen dira mugimendu berriak? Lehengo

eta oraingo borroka, betikoak eta berriak, nola josten dira? Ze elkargunetan, aliantzarako ze espaziotan, egiten dute bat mugimendu sozialek? Eta nolakoa da erakunde publikoekin duten harremana? 2023ko Jakin jardunaldiak plaza eskaini nahi du elkarrekin pentsatzeko Euskal Herriko gizarte mugimenduek gaur egun non, nola, norekin eta zertarako egiten duten borroka".

## Helburuak:

- Gaur egungo militantzari eta gizarte mugimenduei buruzko jakintza partekatzea.
- Euskal Herriko gizarte mugimenduen egoera eta erronkak ezagutzea.
- Erakunde publiko eta gizarte mugimenduen arteko harremanen inguruan hausnartzea.
- Mugimendu jakinetako ki-deak biltzea eta esperientziak elkarbanatzea.

## Egitaraua

### Ekainak 22, osteguna

■ 08:45-09:00 Harrera eta dokumentazio banaketa.

■ 09:00-09:30 Ongietorria eta jardunaldiaren aurkezpena.

-Aitor Bengoetxea Alkorta, UEUko zuzendaria.

-Lorea Agirre Dorronsoro, Jakineko zuzendaria.

-Usurbilgo alkatea.

■ 09:30-10:30 Hitzaldia: Gizarte mugimenduetatik komunitateak ehuntzen: premiazko bai, gatazkatsua ere bai.

-Marina Sagastizabal Yus (Soziologian doktorea, EHUko irakaslea).

-Ainara Santamaria Barina-

garremeria (Doktoregiaia, Kazetaritzan lizentziatua).

■ 10:30-11:00 Atsedenaldea.

■ 11:00-13:00 Mahai-ingurua gizarte mugimenduko kideekin.

-Leo Bueriberi (EHko emakume migrante eta arrazializatuaren sare).

-Iraia de la Torre Landera (Hordago!).

-Mugimendu feministako kide bat.

■ 13:00-15:00 Bazkalordua.

■ 15:00-15:45 Hitzaldia: Gizarte mugimenduen eraldaketak: paradigma berri bateruntz?

-Txomin Poveda (Soziologian doktorea).

■ 15:45-17:30 Mahai-ingurua gizarte mugimenduko kideekin:

-Joanes Igeregi Santamaria (Sukar Horia talde ekologista).

-Ana Mezo Basaras (EHko pentsiodunen mugimendua).

-Aitzol Gil de San Vicente Pla (Xuti Gazte!).

### Ekainak 23, ostirala

■ 09:30-11:00 Herri mugimenduen eta instituzioen harremanaz.

-Julen Mendoza Perez (Zuzenbidean lizentziatua, aholkularia).

-Andere Ormazabal Gaston (Politika Zientzietan doktorea,

EHUko irakaslea).

-Naiara Goia Imaz (Aran-tzazuLab).

■ 11:00-11:30 Atsedenaldea.

■ 11:30-12:15 Mahai-ingurua, eztabaida tartea.

-Julen Mendoza Perez (Zuzenbidean lizentziatua, aholkularia).

-Andere Ormazabal Gaston (Politika Zientzietan doktorea, EHUko irakaslea).

-Naiara Goia Imaz (Aran-tzazuLab).

■ 12:30-13:30 Kultur ekitaldia.

### Informazio gehiago:

ueu.eus atarian.

# Elorri Armendariz, erizain ikaslea: “Urtarrilean iritsi nintzen Suediara”

**E**lorri Armendariz usurbildarra Suedian da duela hilabete batzuetatik. Erasmus esperientziak iparraldeko herrialde horretara eramandu erizain ikasle gaztea. NOAUA!rekin izan da egunerokotasun berria partekatzeko.

## NOAUA! Noiztik zaude Suedian eta zergatik joan zinen bertara?

**Elorri Armendariz:** Urtarrilaren 21ean iritsi nintzen Suediara. Erizaintza ikasten ari naiz eta hirugarren maila amaitzeko Erasmus programarekin etorri naiz hona. Euskal Herrian egiten dugun bezala, klase teorikoak eta praktikoak egiten ditugu hemen ere. Etxez etxeko zaintza paliatiboetan ibili gara azken boladan eta oso berritzailea izan da guretzat. Osasun zentro batean ere bagabiltza. Leku eta jende pila bat ezagutzeko aukera eman digu horrek.

## Ez zaizu gogorra egiten zaintza paliatiboetan ibiltzea?

Bai, batzuetan bai. Gaixo gehienak minbiziak jota daude eta bizitzaren azken faseetan daude. Beste batzuk, ordea, tratamendua hartzen dute eta oraindik ondo daude. Azken horiek bizitza normala egiten dute.

## Nola moldatzen zara ingelesarekin orain?

Bai, eta herrialde honetan normalean ez dago horrekin ar-



“Erizaintza ikasten ari naiz eta Erasmus programarekin etorri naiz hona”. Elorri Armendarizek Suediatik erantzun ditu gure galderak.

### ELORRI ARMENDARIZ

**“Etxez etxeko zaintza paliatiboetan gabiltza eta oso berritzailea izan da guretzat”**

zorik. Kontua da guk lan asko egiten dugula pertsona helduekin eta horietako askok ez da-

kite ingelesa edo ez dute behar bezala ulertzen. Kasu horietan, erizainarekin gu ingelesez komunikatzen gara eta hura arduratzen da gaixoei azalpenak emateaz. Askotan guk hitzez ez daukagu zuzenean gaixoei komunikatzeko modurik. Prozedureta arduratzen gara batik bat eta komunikazioa erizainari uzten diogu.

## Esperientzia bereziki gogorrik tokatu zaizu, norbait hiltzen ikustea edo?

Hiltzen ez, baina hiltzorian bai. Egun bat edo bi geratzen zitzaizkion gaixoren batekin lan egin behar izan dugu. Hala ere, lehen aipatutakoaren harira, hizkuntza kontuak direla eta, gaixoari ez genion ulertzen eta familiakoei ere ez. Aurpegietan, tonuan eta egoeran antzematen genuen. Momentu horretan ez genekien oso ondo zer egin, nahiz eta gertatzen ari zena sumatu edota ikusi, zer egin jakin gabe egon ginen. Laguntza modu desesperatuan eskatzen duten gaixoak ere badaude, baina guk ezer gutxi egin dezakegu kasu askotan.

## Nahiz eta helduekin komunikazioa zaila izan, ingelesarekin ondo moldatzen zara egunerokoan?

Bai. Printzipioz maila nahiko txukuna daukat, baina hasieran kostatu zitzaidan ohitzen. Denbora asko neraman ingelese praktikatu gabe eta martxa hartzea kostatu zitzaidan, baina orain inolako arazorik gabe. Klasean lagun bat egin dugu eta unibertsitatean ere baditugu lagunak. Horiekin guztiekin ingelesez hitz egiten dugu, baina euskaldunak ezagutzeko aukera ere izan dugu eta baita Espainiakoekin ere. Gehien bat espainiarrekin ibiltzen gara pisukidea eta biok.

## “Suediarrak oso jatorrak eta irekiak dira”

### NOAUA! Pisukidea eta biok ikasle-egoitza batean bizitzarete edo pisu bat hartu duzue?

**Elorri Armendariz:** Ikasle-egoitza bat da. Apartamentu asko dituen ikasle-egoitza bat da

eta ikaslez beteta dago. Suediar asko daude bertan. Guk apartamentu txiki bat daukagu eta batera bizi gara bertan. Unibertsitatearen ondoan dago lekua eta hiriko erdigunetik oso gertu.

### Suediarrak nahiko hotzak direla esaten da sarri. Hala iruditzen zaizu zuri ere?

Topiko horrekin ez dakigu oso ados gauden. Hemen ezagutu ditugun espainiar askok hori diote, baina guri klasean, uni-

bertsitatean eta ospitalean tokatu zaizkigun erizain eta gaixo suediarrak oso jatorrak eta irekiak dira. Hasieran oso itxiak izateko fama badute, baina gure kasua ez da hori izan.

# “Elur pila bat ikusteko aukera izan dugu azken asteetan”

**NOAUA! Lekuak ere hotza eta iluna izateko fama du neguan behintzat.**

**Elorri Armendariz:** Martxoan goizeko 6etan argitzen zuen eta ilundu ere arratsaldeko 6ak aldera. Hala ere, herrialdera iritsi ginenean, arratsaldeko 15:00ean ilundu egiten zuen. Goizak ere motzagoak izaten dira neguan eta hilabeterik ilunenetan lau bat orduz egoten da argi. Gu, zortez, udaberri aldean iritsi gara eta neguko hilabeterik gogorrenak ez ditugu bizi behar izango. Udan alderantzizkoa gertatuko zaigu, ekainean goizeko ordubiak aldera argituko du eta gaueko 10:00ak aldera ilundu. Beraz, egun argiarekin bizi beharko dugu uda aldean. Gai hau jende askorekin partekatu dugu eta esan digute lo egiteko oso zailak direla udako hilabete horiek. Nahiko galduta sentituko garela uste dugu oso ondo jakin gabe zein ordu den eta noiz joan behar dugun lotara. Elur pila bat ikusteko aukera ere izan dugu azken asteetan. Udaberria oso polita dela eta eguraldi ona egiten duela esan digute, baina oraindik neguko eguraldiarekin gabiltza.



“Udaberrian eguraldi ona egiten duela esan digute, baina oraindik neguko eguraldiarekin gabiltza”.

## ELORRI ARMENDARIZ

**“Iritsi ginenean, arratsaldeko 15:00ean ilundu egiten zuen. Goizak ere motzagoak izaten dira neguan eta hilabeterik ilunenetan lau bat orduz egoten da argi”**

**Gauz parranda egiteko ere,**

## hotza arazo da?

Ez digu inolako arazorik suposatzen. Hemengo parranda ez da Euskal Herrikoa bezalakoa. Diskotekak badaude, baina oso garestiak dira eta barruan alkohola hartzea oraindik eta gehiago. Gainera, oso goiz ixten dituzte eta giroa ere ez da izugarria izaten.

Parrandak ikasle-egoitzetan

egiten ditugu, batez ere. Gure lagun espainiarrak beste ikasle-egoitza batean bizi dira eta oso-oso handia da leku hori. Hara joaten gara maiz parranda ederra dagoelako.

Ez gara gehiegi joaten hala ere, asteburuetan bidaiatu egiten dugulako eta bestela praktikak edo bestelako planak ere izaten ditugulako.

# “Ekaina bukaera arte egongo gara hemen”

**NOAUA! Bidaiak aipatu dituzu. Non izan zarete orain arte eta nora joateko asmoa duzue?**

**Elorri Armendariz:** Suedian Gottenburgon izan ginen. Hel-sinkin ere izan ginen eta duela aste batzuk Laponian izan ginen, Finlandia aldeko Laponian. Izugarritzko hotza egiten zuen eta elurretan ibili ginen. Kopenhage eta herrialde baltikoetako hiriburuak bisitatzeko

asmoa ere badugu. Oraindik leku asko dauzkagu ikusteko. Ordutegi ona daukagu eta opor egun ugari, beraz, aprobetxatuko ditugu.

## Zerbait botatzen duzu faltan?

Janaria izugarri. Jendea eta kaleko bizitza hori ere hemen ez dago. Eguraldiatik izango da neurri handi batean, baina neguan ezinezkoa da kalean egotea zerbait hartzen edo bes-

terik gabe egonean. Bertakoek etxean ematen dute eguna. Udan ea zerbait aldatzen den. Oso garestia ere bada herrialdea orokorrean eta alkohola erosteko denda berezi batzuk daude, baina oso garestiak dira. Kafea ere oso garestia da, eta janaria orokorrean ere bai.

**Behin hango ikasketak amaituta, etxera itzuliko zara uda partean. Zer asmo duzu gero?**

Ekaina bukaera arte egongo gara Suedian. Ez dut uste gero lanera itzuliko naizenik, suediera jakitea ezinbestekoa da, eta ez daukat horretarako asmorik. Laugarren maila egingo dugu datorren urtean eta dena praktikak izango dira. Pentsatzen dut Osakidetzatik deituko digutela orduan, eta gero ez dakit espezializazioaren bat egin edo zer.

## Otar-Goxokoa Euskadiko hanburgesa onenen artean da

**E**uskadiko autore-hanburgesen lehen lehiaketa ospatu zen aurreko igandean Tolosan. Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako Harakinen Elkarteek antolatu zuten ekitaldia. Bi kategoria bereiztu zituzten. Batean, hanburgesa tradizionala epaitzen zen eta, bestean, hanburgesa berri-tzailea. Azken honetan saritu zuten Otar-Goxo. Patxi Iparragirrek bigarren saria eskuratu zuen. Zorionak!



Autore-hanburgesen lehen lehiaketa jokatu zen igandean Tolosan. Hanburgesa berritzaileen kategorian, Patxi Iparragirrek bigarren saria jaso zuen. Argazkia: Tolosaldeko Ataria.

Tolosaldeko Atarian irakurri dugunez, "hanburgesa tradizionalako lehen saria Getxoko harategiko Haritza Gabiriak jaso zuen". Hanburgesa berri-

tzaileari dagokionez, "Barakaldoko Ricardo harategiko David Vicok jaso zuen lehenengo saria. Usurbilgo Otar-Goxo harategiko Patxi Iparragirre sailkatu

zen bigarren, eta Gasteizko Santi harategiko Agustin Fernandez hirugarren". Beste sari bat gehiago Otar-Goxoko kide-entzat.

## Usurbilgo pilota txapelketa hastera doa

Usurbilgo pilota txapelketa 50. edizioa iritsi da. Lehen kanporaketak hastear dira eta finala Santixabel jaietan jokatu da.

### Maiatzak 26 ostirala, 19:30

Etxezarreta-Aranguren  
Ruiz de Larramendi-Garmendia

Lizeaga-Beloki  
Arribillaga-Azpiroz

### Maiatzak 27 larunbata, 18:30

Alberdi-Irazustabarrena  
Garcia-Cordon

Urbietia-Erasun  
Urkizu-Labaka

### Ekainak 2 ostirala, 18:30

Apezetxea-Apezetxea  
Orbegozo-Aranburu

### Ekainak 3 larunbata, 18:30

Elola-Aizpuru  
Odriozola-Alonso

Santxo-Urruzola  
Zabaleta-Olaiz

### Ekainak 4 igandea, 11:30

Astiz-Villabuena  
Barbajero-Garatea

### Kadete mailako txapelketa

Lau bikote arituko dira eta finalaurrekoak ligaxka moduan jokatu dira.  
Alejo-Errasti (Pagazpe).  
Zufiria-Oñate (Behar Zana).  
Aburuza-Pagola (Añorga).  
Perurena-Elola (Tolosa).

### 1. Jardunaldia:

**Ekainak 2 ostirala, 18:30**  
Alejo-Errasti/Perurena-Elola

### Ekainak 4 igandea, 11:30

Zufiria-Oñate/Aburuza-Pagola

### 2. Jardunaldia:

**Ekainak 9 ostirala, 18:30**  
Alejo-Errasti/Zufiria-Oñate

### Ekainak 11 igandea, 11:30

Aburuza-Pagola/Perurena-Elola

### 3. Jardunaldia:

**Ekainak 16 ostirala, 18:30**  
Alejo-Errasti/Aburuza-Pagola

**Ekainak 17 larunbata, 18:30**  
Zufiria-Oñate/Perurena-Elola

**Finala:** Uztailak 2 igandea.

## Udako eskubaloi kanpua, Usurbil KEren eskutik

Oiardo kiroldegian egingo da ekainaren 22, 23, 26, 27 eta 28 egunetan, goizeko 09:30etik 12:30era.

LH3, LH4, LH5, LH6, DBH1 eta DBH2ko umeei eskainia egongo da. Ura eta haiketako norberak eraman beharko du.

Eskubaloi kanpus honetako izen-ematea egiteko, honako formulario hau bete beharko dute interesadunek: <https://forms.gle/i1n-UTx8ErXXeYxZX8> eta 40 euroko transferentzia egin beharko dute hurrengo kontu korrontean: ES80 3008 0259 1747 4227 6324.

Familia bereko anai-arreben izen ematearen kasuan, bakoitzak 30 euro ordaindu beharko ditu. Epemuga maiatzaren 26a izango da.

### Harremanetarako

688 63 14 55  
usurbilkirollelkartea@gmail.com

## 3. Uxue Trail mendi lasterketa solidarioa

### Ekainak 18, igandea

■ 09:00etan, Usurbilgo frontoian.

■ Lasterketan parte hartze-ko moduak: lasterketa luzea (20 km), motza (11,5 km), Uxue paseoa (5,5 km) eta dortsal solidarioa.

■ Izen-ematea: ekainaren 16ko gaueko 22:00ak arte [kronoak.com](http://kronoak.com) atarian.

**Antxeta**  
TABERNA  
egunero irekitzen dugu!  
· eguneko menua · asteburuko menua  
· oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...  
paellak enkarguz!  
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

  
**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

  
**JUANTXO**  
BURDINDEGIA  
Zubiaurrenea 8  
943 370 008

  
**Otar-Goxo**  
Elkargaiak  
Zubiaurrenea, nº2  
943 36 55 81  
20170 Usurbil



**ETXEBIZITZA****Salgai****Alokairuan**

Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbitzuarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Jarduera lizentzia duen pisua da, igogailua, bainugela, sukaldia eta itxarongela barne. WiFi eta elektrizitatea barne. Kopapena eta sarbide ona. 2020an berriua. 670 410 273.

Usurbilen, kaxkoan edo auzoetan mutil batentzako pisu bila nabil. 622925562

Ekainaren 26tik abuztuaren 26ra bizitzeko moduan dagoen etxe bat alokatu nahiko nuke. Familiarteko baten egonaldiako litzateke. 636711514

Usurbilen 2 edo 3 logelako etxea alokatu nahiko genukeen aita eta 13 urteko semea gara. 683548749.

Logela bila nabil Usurbil, Aginaga aldean. 643 830 772 (Luis).

**MOTORRA****Salmenta, garajeak**

Garaje itxia salgai herri sarrean. 646 601 947. 18:00etatik aurrera deitu.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 70 metro koadro ditu eta sarre-rako atea handia dauka materialak erraz sartu eta ateratzeko. 652765583

Gutxi erabilitako lau gurgil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

Aginagan, Elutx kalean 30 m<sup>2</sup> garaje itxi bat salgai. 629 460 966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Zubietan etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu lanaldi erdian. 695 783 202.

Zaintzailea behar dugu lanaldi osoan, tituluduna, pertsona heldu bat zaintzeko. Euskalduna bada hobe. 616 273 785.

Sukaldari bat behar dugu Kale-zarko Matiaren zaintzadun etxebizitzan auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? Animatu eta deitu hona: 680483164

Batxilergoko lehen mailako ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrik eman-go dizkion pertsona baten bila gabilta. 608201745

Klase partikularrik emateko prest dauden zerranda osatzen ari da Udarregi Ikastola. 943 36 12 16.

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

**Lan eskaerak**

Orduka garbiketa-lanak egingo nituzke. Garbiketa-lanak egiten esperientzia. 602 082 583.

Emakume bat, interna bezala lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen: 602 586 014.

Orduka edo jornada erdiz etxeko garbiketarako egiten ditudan 50 urteko emakume bat naiz. 643 576 129.

Pertsona helduak zaintzen edo

etxeko lanak egiteko lan bila dabilen neska euskaldun bat naiz. 626 604 527

Haurrak zaintzeko eta ingeleseko klaseak emateko prest dagoen neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz)

Kurtsoan zehar arratsaldez haurrak zaintzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

**BESTELAKOAK**

Erloju digital bat aurkitu dugu Agerialdeko patiorako sarreran, Arratzain bideko espaloian. Erlojua beltza da eta pausoak neurtzen dituen horietakoa da. Galdu duenak Udaltzaingoa galdetu, bertan utzi dugu.

Abenduaren 28an Gabonetako Haur Parketik bueltan jantzita genuen zapatiletako bat (Adidas markakoa, beltza) beste norbaite-n dela jabetu gara. Gure zapatiletako bat beste batek jantzita eraman zuen. Inor honetaz jabetu bada deitu: 687 779 669.

**Futbol partidak****Haranetik kanpo:****Maiatzak 27, larunbata**

■ 16:00 Jubenilen finala, Donostiako Cesar Beniton:  
-Usurbil FT A  
-Intxurre KKE

**Maiatzak 28, igandea**

■ 11:00 Infantil nesken finala, Orioko Mendibel-tzen:

-Zarautz KE A  
-Usurbil FT A

■ 17:00 Preferente neskak igotzeko kanporaketa, Oiartzungo Karla Lekuonan:

-Oiartzun KE C  
-Usurbil FT

Oharra: aldizkari hau inprentara bidaltzerakoan, zehazteke zegoen jubenilak B taldearen neurketaren hitzordua.

**Pilota partidak**

Usurbilgo 50. Senior txapelketako final zortzirenak hastear dira.

**Maiatzak 26, ostirala**

**19:30**  
-Etxezarreta-Aranguren (Oretera)  
-Ruiz de Larramendi-Garmendia (Lazkao)

-Lizeaga-Beloki (Astigarraga)

-Arribillaga-Azpiroz (Iruztun)

**Maiatzak 27, larunbata**

**18:30**  
-Alberdi-Irazustabarrena (Alegia)  
-Garcia-Cordon (Iruñea)

-Urbieta-Erasun (Villabona)  
-Urkizu-Labaka (Hernani)

**Pilota partidak****Maiatzak 26, ostirala**

■ 18:30 Infantil mailako partida Usurbilen:  
Pagazpe-Ilunpe 3

**Pottokak****Santuenean****Ekainak 4, igandea**

■ Eskubaloï kantxan.  
■ Ordua: 10:00-13:30  
■ Prezioa: 2,5 euro.  
■ Adina: haurrentzat.  
■ Antolatzailea: Santuenea K.E. Laguntzaileak: Udala, Lar Zaldiak.  
■ Oharra: "Iazko ekimen arrakastatsua berriz errepikatzeke asmoz antolatu dugu. Iazko ilara luzeak ekiditeko asmoz, parte hartzaileei zenbaki bat emango zaie eta bozgorailutik deituko da. Pottoka gainean bueltatxo bat eman eta jolasak egiteko aukera eskainiko da".

**Heriotzak****America****Oviedo****Matias**

Maiatzaren

17an hil zen, 84 urterekin

**Goardiako farmaziak**

**Osteguna 25** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Ostirala 26** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Larunbata 27** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 28** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Astelehena 29** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Asteartea 30** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteazkena 31** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Osteguna 01** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Ostirala 02** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Larunbata 03** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Igandea 04** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
GOMEZ BRAVO, MARINA  
Kale Nagusia, 14 Hernani  
943 55 48 92

**Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.**

# Agenda maiatza

## 26 ostirala

- **Sareren mobilizazioa**, 20:00etan Mikel Laboa plazan.

## 27 larunbata

- **"Usurbil Museo Irekia" bisita gidatua** 12:00etan Sutegitik. 650usurbilbizi.eus
- **Kantu-jira** 12:00etan Mikel Laboa plazan.
- **Aginagako Eliza Zaharrea: Perli eta Koxkolo pailazoak** 17:00etan. **Bakarriketa gaua** 22:00etan.

## 28 igandea

- **Udal eta foru hauteskundeak; Zubietako Herri Batzarra berritzeko hauteskundeak.**
- **"Usurbil Museo Irekia" bisita gidatua** 12:00etan Sutegitik. Informazio gehiago: 650usurbilbizi.eus

## Perli eta Koxkolo Aginagan arituko dira larunbat honetan

**M**aiatzaren 27an larunbata, arratsaldeko 17:00etan hasita, Aginagako Eliza Zaharra Elkargunean arituko dira. Antxomolan-txa elkarteak antolatutako 4-7 urte arteko haurrei zuzenduriko emanaldiko sarrera doakoa izango da.

Ikuskizun berrian, "Perlik eta Koxkolo bidaia zoragarria biziko dute munduko hainbat uharte zeharkatuz. Istorio eta abentura liburuei omenaldia: Verne, Stevenson, Defoe... Abenturaz betetako ipuin musikatu dibertigarria, elkar hobeto ezagutzen eta gehiago maitatzen ikasteko. Haurren irudimena piztuko dugu eta familia giroan primeran pasako dugu", aditzera eman dutenez.

### Frontenis saioak

Ekainaren 1etik 21era izango dira LH 1-6koentzat, astelehen eta asteazken arratsaldeetan, 15:00-16:15 artean.

## Bakarriketa gaua Aginagan

"Irribarrea barra-barra" bakarriketa gaua antolatu du Aginagako Eliza Zaharra Elkarguneak larunbat honetarako. 22:00etatik aurrera, "Mirari Martiarenak, Idoia Torregaraik, Beatriz Egizabalek eta



Aginagako Eliza Zaharrea arituko dira arratsaldeko 17:00etan.

### Yoga, dantza eta antzerkia

Hiru diziplina hauek uztartuko dituen ekintza iragarri dute 4-12 urte artekoentzat Aginagan ekainaren 22an, 23an, 26an, 27an, 28an, 29an eta 30ean, 10:00-13:00 artean. "Plaza mugatuak dira eta gutxi daude libre".

San Praixku guraso elkarteak antolatutako ekimen hauetarako, maiatzaren 31 baino lehen eman beharko da izena: 695 723 192 (Aitziber).

Iker Plazaolak monologo gaua eskainiko dute Aginagako Eliza Zaharrea. Sarre-rak aurrez eskuratu ahalko dira 6 euro-tan, usurbilkultura.eus plataforman edo Arrate tabernan.

### Datozenak

#### 'Sagarrondotik Sagardora' ikastaroa

'Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak' ikastaroa antolatu du Alkartasuna Kooperatibak ekainaren 2an, 15:00-18:00 artean Potxoenean. Aitor Etxeandiak bideratuko duen saiorako izena aurrez eman beharko da usurbilkultura.eus plataforman edo alkartasuna.eus atarian.

#### Ezkeltzura irteera

Ezkeltzu Bizirik plataformak martxa antolatu du ekainaren 4an. "Zizurkilgo Ezkeltzu mendian zentral eolikoa eraikitzeke ekimena aurkeztu du Green Capital enpresak. Inguru zoragarri hori ezagutzeko irteera antolatu du Andatza-Ezkeltzu Bizirik! elkarteak". Zutabe bana abiatuko da Usurbildik eta Zizurkildik. "Hegaztiei, landareei eta ondare arkeologikoari buruzko azalpenak" eskainiko dituzte.

#### Ekainak 4, igandea

- 09:00 Usurbilgo plazan.
- 09:30 Zizurkilgo P. M. Otaño plazan.
- 10:00 Ezkeltzuko magalean (Zizurkil aldetik).
- Ondoren, hamaiketakoa.
- Antolatzailea: Andatza-Ezkeltzu Bizirik! elkarteak.

**eskura**  
 elikadura eta dietetika aholkularitza  
 DIABETESA, HIPERTENSIOA,  
 GIZENTASUNA, ELIKADURA  
 ETA KOLESTEROL ARAZOAK  
**688 843 696**  
 Zubiaurrea 1, 1c Usurbil

**ANORGA TXIBI S.L**  
**KRISTALDEGIA**  
 · komertzial instalazioak · beira bikoitza  
 · segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak  
 · ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...  
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

**www.noaua.eus**  
 USURBILGO ATARIA

# SAGARRONDOTIK SAGARDORA 2023

**Ekainak 2, OSTIRALA**  
SAGASTIEN UDAKO KIMAKETA,  
GAITZAK ETA IZURRITEAK.

Aitor Etxeandia

**ORDUTEGIA:** 15:00-18:00 Potxoenea



**SARRERAK:** alde zurretik  
usurbilkultura.eus plataforman edo  
[www.alkartasuna.eus](http://www.alkartasuna.eus)

Kimaketa  
praktikak  
bertako  
sagastietan  
egingo dira!



## noaua.eus

Herriko berriak beti soinean

Albisteak, argazkiak, bideoak,  
agenda, zorion-agurrak,  
eguraldia, aldizkaria online...  
Klik batean den-dena ikusgai zure  
eskuko telefonoan, tablet-ean  
edo ordenagailuan.



[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

# Edertu zaituz!



## "LA CÁPSULA DEL TIEMPO"



- zelula hilak deuseztu
- larruzalaren xurgatzeko gaitasuna hobetu
- mirkozirkulazioa estimulatu
- elastikotasuna hobetu
- poroak leundu

gnar  
ESTETIKA

@enarestetika · enarestetika.com

943 571 680 | 620 852 875 · Muna Lurra 2, behea, Usurbil

**Ane**  
ILEAPAINDEGIA

*Artzabal*

**JUBILATUENTZAT  
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 688 75 96 96

**INTZA**  
ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA ZENTROA

**BERRIA!  
GOLD LOKATZAK**

secretos™  
del agua

Eguedrian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41

**Elexpe**  
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

GOLDWELL  
**ELUMEN**

**m**  
**I**  
mistoa

Azkeneko produktu eta teknikak!

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951